

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Anfibioek gorputz atal berriak sortzeko duten ahalmena “kopiatzen”

ARRABIO EDO UHANDRE mota batzuek galdutako gorputz atalak berreskuratzeko aukera dute. Gaitasun hori ugaztunci aplikatu ahal izatea aspal-di bihurtu zen zientziaren erronka.

Uztaila hasieran *Nature* aldizkarian argitara emandako artikuluan, Dresden-eko (Alemania) birsorketa-terapietako zentroko Elly Tanaka ikerlariak adierazi du berak zuzentzen duen taldea gai dela, *Ambystoma mexicanum* izeneko arrabio espezieari, proteina fluoreszentearen genea sartu ondoren, gorputz atal berria eraikitzeke zelulek egindako bidea eraikitzeke.

Besteak beste, muskulu zaharretako zelulek memoria dutela ikusi dute, eta horri esker gauza direla muskulu berriak sortzeko. Gauza bera gertatzen da nerbioetako eta epidermiseko zelulekin.

Egindako ikerketak beste arrabio mota batzuekin errepikatu nahi dituzte, ea emaitzak antzekoak diren. Dirudienez, aztertutako zelulak eta ugaztunenak antzekoak dira, eta horrek itxaropenaren ateak zabaltzen dizkie ikertzaileei.



Ambystoma mexicanum.

Zulo beltz “txikiak” ere badaude

ORAIN ARTE ezagutzen ziren zulo beltzen tamaina eguzkiarena baino milioika aldiz handiagoa da. Baina Frantziako Espazio-Izpien Ikerketarako Zentroko astrofisikariek adierazi berri dutenez, eguzkiaren masa baino 500 aldiz handiagoa besterik ez den zulo beltza aurkitu dute Lurretik 290 milioi argi-urtera.

Zentroko Sean Farrell ikerlariaren arabera, zulo beltz handiak zulo beltz ertainen arteko elkarketaren ondorio izan daitezke; beraz, egiaztatzeke bidean izan daiteke orain arte teoria hutsa zena.

Aurkitu berri den zulo beltzari HLX-1 izena ezarri diote, eta eguzkiak baino 260 milioi aldiz argitsuagoa da. Aurkikuntza honi esker, Esne Bideko eta beste galaxia batzuetako “misterioak” hobeto ezagutzeko bidea zabalduko dela uste da.

Komodoko dragoia, orain arte uste zena baino arriskitsuagoa

Orain arte, zientzialariek uste zuten Komodoko baranoaren biktimak bakterio baten eraginez hiltzen zirela, baina azken ikerketen arabera, pozoia eta dragoiaren hortz sendoen haginkadak dira benetako erantzuleak.

<http://ttiki.com/4889>

Gero eta erle gehiago daukagu munduan

Azken urteotan asko aipatu da erle populazioak beherantz egin duela. Baina orain gutxi FAOk argitara emandako azterketa baten arabera, munduko erle kopurua %45 hazi omen da azkeneko bost hamarkadetan.

<http://ttiki.com/4890>

Pentsatzen genuena baino bakterio mota gehiago dugu larruazalean

Hamar pertsona osasuntsuren larruazalaren hainbat zati aztertu ondoren, bakterioei zegozkien 112.000 sekuentzia genetiko identifikatu zituen zientzialari talde batek. Gehienak besoan zeuden; gutxien, belarriaren atzean.

<http://ttiki.com/4891>



Zientziari buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua zientzia@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16